ZER DINO EBIDENTZIAK? PANTAILAK ETA HAURTZAROA

Laura Cuestagaz gogoetan



begoñazpi ikastola

ESKUTIK | TEKNOLOGIA ETA SARE SOZIALAK

Pantailek, umeen eta nerabeen eguneroko bizitzan bere tokia dabe: batez beste, 11 urtegaz izaten dabe lehen eskuko telefonoa eta honen erabilerak itzelezko kezka eragiten deutse familiei. Baina debekatu ala hezi egin behar da?

Gai honi buruz, Camilo José Cela Unibertsitateko Komunikazio Digitaleko irakasle, Crecer con pantallas y Conectados liburuaren egile eta Madrilgo Udalean adikzioen prebentzioan hamar urtetan baino gehiagotan lanean dabilen Laura Cuestarekin hitz egin dogu.

Monografiko honetan, egungo datu eta azterlanekin ezezik, araudiarekin be kontrastatutako hainbat hausnarketa batu dogu.

UNICEF Espainia txostenaren zifrak

Haurtzaroa, nerabezaroa eta ongizate digitala (UNICEF Espainia, USC, CCII eta Red.es; LH 5. mailatik Batxilergora bitarteko zein Lanbide Heziketako 2024ko zemenditik 2025eko bagilera bitartean jasotako ia 100.000 ikasleren datuak).

Norberaren eskuko telefonoa 10 / 12 urterekin

Adina	Norberaren eskuko telefonoa	Ehunekoa
10 urte	📱📱📱📱▫️▫️▫️▫️▫️▫️	**% 41**
12 urte	📱📱📱📱📱📱📱📱▫️▫️	**% 76**

Lehen eskuko telefonoa izateko batez beste adina: 11 urte.

Iturria: UNICEF Espainia (2025)

Ohitura digitalak etxean

Datua	Zifra
Eskuko telefonoa gau-mahaian dabela oheratzen dira	**% 60**
Gurasoek otorduetan eskuko telefonoa erabiltzen dabela esaten daben nerabeak	**% 23,7**



1. grafikoa. Asteburuan, sareetan 5 ordu baino gehiago, gurasoek otorduetan eskuko telefonoa erabiltzen daben ala ez kontuan harturik.

Iturria: UNICEF Espainia (2025)



2. grafikoa. Sareetan egunean 5 ordu baino gehiago (aste barruan / asteburuan) eta plataforma digitalen erabilera adiktiboa edo arazoak eragiten dauzana (gitxi gorabeherako zifrak).

Iturria: UNICEF Espainia (2025)



3. grafikoa. Sareetara sartzeko adinari buruzko arau nagusien egoera (2026ko urria).

Iturriak: Europako Batzordea, EFE, ABC News eta El Demócrata

Txostenaren ondorioa: logelan eskuko telefono barik lo egiteak eta eredu ona izateak, arazoak eragiten dauzan erabilera ezezik, online arrisku-jokabideak be erdira murriztu daikez.

Garrantzitsuena laguntzea, mugak ezartzea eta digitalki heztea da.

Beste erreferentzia batzuk

Natibo digitalaren mitoa

2001ean Marc Prenskyk sortutako terminoa da. Kirschner eta De Bruyckerek (2017) eginiko berrikuspenaren arabera, informazioan aditua dan natibo digitala ez da existitzen: teknologiaz inguratuta hazteak ez zaitu aditu bihurtuko.

Erregulazioa: atea ixtetik segurtasuna eskatzera

Australiako Legeak, 2025/12/10etik indarrean, 16 urtetik beherakoei 10 sare handitan sartzea debekatzen deutse. Frantzian, Konstituzio Kontseiluak 15 urtetik beherakoei sareak debekatzen eutsen legearen artikulu nagusia baliogabetu eban (2026/08/14). EU KIDS Act Europako proposamenak (2026/09/17) adinak etapaka finkatzen dauz: 13 urte bete arte, sare barik; 15 urtetik aurrera, norberaren kontua; eta plataformek, diseinutik hasita, seguruak dirala erakutsi eta frogatu beharko dabe. Oraindik Parlamentuaren eta Kontseiluaren zain dago. Espainian, ingurune digitaletan adin txikikoak babesteko legea, 16 urte izan arte sareei betoa jartzen eutsena, gainbehera etorri zan hauteskundeak aurreratzeagaitik Gorteak desegin ziranean.

Alpha School (Austin, Texas)

AA softwarearekin, egunero, irakasgaiak ordu bitan emon eta gainontzeko eskola-orduak tailerrak egiten emoten dabez. Ikastetxe pribatua eta ordaindu beharrekoa da (FOX 7 Austin).

Horowitz Andreessen Academy

Unibertsitaterako alternatiba da, 2027ko udazkenetik aurrera 50 ikasle inguru izango dauzan titulu ofizialik gabeko zentroa. Anthropic, Nvidia eta OpenAI bezalako bazkideak izango dauz (CBS News).

Alberto C. Taquini eta hezkuntza-«overtake»a

Mediku eta ikertzaile argentinarra. Berak eskainitako «Hacia el cambio: overtake» hitzaldiak XIX. eta XX. mendeetako hezkuntza-eredua agortuta dagoala planteatzen dau (UCEMA).

Gai honeetan sakontzeko iturriak

Iturria	Edukia
Infancia, adolescencia y bienestar digital UNICEF Espainia, USC, CCII eta Red.es (2025)	Ia 100.000 ikasleren txostena: lehen eskuko telefonoa, erabilera-orduak, loa, familiaren eredua eta arazoak eragiten dauzan erabilera.
The myths of the digital native and the multitasker Kirschner eta De Bruyckere (2017)	Natibo digitalaren mitoa indargabetzen dauan berrikuspen zientifikoa (Teaching and Teacher Education, 67).
La EU KIDS Act restringirá el acceso de los menores a las redes sociales Europako Batzordea (2026/09/17)	Adin minimoak etapaka eta diseinutik hasitako segurtasuna ezartzen dauzan Europako proposamena.
El Constitucional francés censura la prohibición de redes sociales a menores de 15 años EFE (2026/08/14)	Frantziako legearen artikulu nagusia baliogabetu zan.
Australia's social media ban for kids under 16 goes into effect ABC News (2025/12/10)	16 urtetik beherakoentzako Australiako debekua indarrean sartu zan.
Alpha School eta Horowitz Andreessen Academy FOX 7 Austin · CBS News	Adimen artifizialean oinarritutako hezkuntza-eredu barriak.
Hacia el cambio: overtake (Alberto Taquini) UCEMA	Hezkuntza-eredu tradizionalaren agortzeari buruzko hitzaldia.

Erredakzioa eta analisia:
Zaira Vicente · EDUCAIDEAko zuzendaria
ESKUTIK proiektua · Begoñazpi Ikastola